

ASKATASUN HOTSAK

- Itxura txarra hartzen diot honi. Agudo, ospitalera eraman behar dugu denborarik galdu gabe! - medikuak anbulantziari hots egiteko agindu zion erizainari, ezin baitzuten ezker bematik borborka ateratzen zitzaidan odol isuria geldiarazi.

Zorionez, Araceli, txikitako lagun-mina, nirekin nuen babeska eskaintzen. Anbulantziara elkarrekin igo ginen eta haren berba zein laztanek, zeharo baretu ninduten. Noraezean, galduta eta kasik ihesbiderik gabe sentitzen garenean, halabeharrak, benetan pena merezi duten pertsonen aurrean jartzen gaitu. Hari begira, bizitzako gertaera ugari pasatu zitzaizkidan burutik amen batean. Nire ezusterako, oroitzapenetako golkoan gordetako une gehienetan, Araceli nonahikoaren presentziak betetzen zituen eszena guztiak, errealitatean ez bezala, momentuko kameraren atentzio osoa erakarriz. Inprobisatutako zine aretoan, pelikulako protagonista nagusia eta ikuslea pertsona berbera ziren hartan, aktorea nagusia, izarra, bera zen. Errudun sentitzen nintzen, nire itzalpean egongo balitz bezala tratatzen bainuen, haren barneko argia, zintzotasun eta maitasunez betetako argia, ez bainuen ikusten. Edonola ere, erizainak zainean hustu ninduen anesthesiak nire kontzientzia garaitu zuen, begiak itxiz, amestuz ...

- Ebakuntza behar bezala atera da. – medikuaren mantalak jariatzen zuen tabako beltz hatsak, aitaren aspaldiko oroitzapen goxoak ekarri zizkidan gogora – Aizkorakadak koadrizepsaren ezker hegalean zeharkako ebaketa sakon bat eta femur buruko haustura eragin dizu. Zorionez garaiz iritsi zinen ospitalera eta hanka salbatu genizun. – aldakatik orporainoko igeltsua jo zuen hatz-koskorrekin, irribarre goxoa luzatuz. Ni ordea, ez nengoen txantxetarako.

- Tira, tira, utzi pisu bako berbak nahi duenarentzat eta joan gaitezen harira. Noiz hasi naiteke ortuko lanetan? Bakarrik bizi naiz baserrian eta huraxe dut bizibide. – zirujauari izerdia zerion soilgunetik.

- Aiurri txarreko emakumea zaranik ez dago dudarik. Sentitzen dut baina bi hilabetez atsedean hartu beharko duzu eta ondoren, beste hirutan errehabilitazioa. – haren erabateko erantzunak lur jota laga ninduen.

Badira jada berrogeita bi urte aitarekin ortu lanetan hasi nintzela Lemoako Elorriaga auzoko “Kresala” baserrian. Halaxe da, gure mugaz bestekoentzat harritzekoa den arren, Lemoan, zementu-fabrikaz gain, nekazaritza zein abeltzaintza tradizioa ondo errotuta daude aspalditik. Maite Txikon Loinaz nauzue, negutegi bidezko laborantza ekologikoan aitzindari. Gogor egin behar izan nuen lan zaletasuna zein ogibidea uztartzen zituen negozioa aurrera ateratzeko. Arrakasta berriz ez zen musu-truk etorri, ezkongai gelditu bainaiz. Ingurukoek betidanik esan didate nire izaera zatarra horren eragile zuzena izan dela. Ez nago batere ados, gauzak argi eta aurpegira esaten ditut, besterik gabe. Amak beti errepikatzen zuen burumakur eta aitari begira: “Zelako egurra, halako ezpala”. Nire urterik onenak

Kresalari eskaini dizkiot eta orain, berrogeita hamazazpi urte bete berri ditudala, nora noa bikote bila? Inora! Bakarrik hobe. Gure aitona zenak zioen bezala, “Arroza pasako jatzu Maite, halako martxan alboko Joxegaz berez”. Ederki asmatu ere alproja hark. Joxe, ondoko baserrikoen seme bakarra zen, txikitatik nire atzetik zihoan alamenekoa.

Esku-ohean eraman ninduten Galdakaoko Ospitaletik Lemoara garraiatuko ninduen anbulantziara. Harrera gelako informazio taulan, hizki nabarmenez idatzitako eta argazkiz lagunduriko iragarkiak atentzioa eman zidan. Illehorri luze, irribarre amaigabe eta begirada atsegindun emakumeak konfiantza transmititzen zuen.

“Erizaintzako Teknikari titulua duen emakume Dimatarra ezinduak zaintzeko eskaintzen da. Interesatuak jarri kontaktuan Mirenekin 672312231 zenbakian.”

Iragarkiaren azpialdean haren mugikor zenbakia eramateko paper zatietatik bat ebaki nuen erizainen laguntzaz. Baserrira heldu bezain pronto hots egingo nion. Senezko erabaki hark nire unibertso bakartia hankaz gora jarriko zuen.

Arratsalde hartan elkartzekoak ginen baserrian. Baso bidetik oinez, autoz baserriraino heltzea ezinezkoa baitzen egun euritsuetan, hurbiltzen ikusi nuen eta artegatu jarri nintzen esperoan. Haren erabateko itxura aldaketak erasan ninduen, beste emakume bat zirudien.

- Zu ez zara Miren! Ze broma klase da hau? – kolore bizidun zapiak ilea estaltzen zion eta aurpegi garbiaren tokian, trebezia askorik gabe margotutako ezpain gorritz eta hauts koloretsuz alaitutako masailez aurkeztu zen nirean. Haren hortzek distira galdua zuten. Ez zirudien argazkiko emakume berbera. Kikildu gabe erantzun zidan ordea.

- Bai, neu naiz. Argazkia atera zidatenetik hona, asko aldatu naiz, arazorik nire itxurarekin? – ukabilkada sendo batek bezala kolpatu zuen nire mesfidantza.

- Ez, ez, batere ez.

- Zu Maite, ezta? Urte askotarako! – nigana hurbildu eta bi musu eman zizkidan, eztulka hasiz.

Haren gorputzaren dardara eta begi goibelak disimula ezinak ziren nahiz eta saiatu. Segurtasun itxura eman nahi hartan zerbait susmagarria sumatu nuen baina dokumentazioa, tituluak eta erreferentzia informeak erakutsi zizkidanean, kezka guztiak usatu nituen. Gainera, ni zaintzeaz gain, baserriko lan neketsuan aritzeko prest agertu zen. Hala ere tentuz jokatu behar nuen, azken finean, ezezagun bat bainuen pinu eta eukalipto artean ezkutatutako baserri bakartian.

Lehen unetik ederki moldatu zen ortuko zein baserriko lanetan. Domu Santu eguna helduta, izozteak ekiditeko maiatzean ereindako babarrun uzta jasotzeko garaia zen. Babarrun leka sikuak banan-banan batu eta baserriko garaian lehortzen uzteko lan neketsua inolako kezarik gabe bete zuen. Ilunabarrarekin batera eta nekearen nekeaz, lo geratu zen hain gustuko zuen sutondoko besaulkian. Supazterrean inoiz baino ederrago ikusi nuen. Ordu erdi luze batez, bere loaldiak eskaintzen zidan anonimatuan babestuz, ez nion begirik kendu. Gurpildun aulkia kontu handiz bultzatu nuen berarengandik metro erdi eskasera kokatzeko. Hain zen polita bere sinpletasuna, haren betile kiribilduak, eguneroko lan gogorrek zaildutako azala, lo adurrez hezetutako ezpain haragitsuak, amaigabeko lepoan hasten zen soin mamitsu bezain laztankorra ... Hura bai deskriba ezinezko momentua, lilura, samurtasun eta lasaitasunez betea. Beldur nintzen, inoiz ez bainuen halako sentimendurik izan eta nire benetako gogo eta desioei eutsiz, aldendu eta barneko sua ohe gaineko bakardadean itzali nuen. Txikitatik muinetaratutako moral erlijiosoak ez ninduen lasai lo hartzen utzi, eutsi ezinezko erruduntasun sentimenduak erazarriz.

Hurrengo egunetan jarrera hotza mantendu nuen Mirenekin, unada beroa pasatuko zenaren esperoan. Bestalde, berarengandik urruntzeko eginahal guztiak alferrikakoak izan ziren, bere ondoan inon baino gusturago sentitzen bainintzen. Ospitalean begiz jo nuen argazkiko emakumearen gero eta antz handiagoa hartzen zihoan. Izartu ondorengo aurpegi garbiaz inoiz baino ederrago ikusten nuen, aurpegian etengabe margotutako irribarre gozoak liluratzen ninduen eta egun hartara arte kendu gabeko zapiaren azpian ezkututzen zuen ile kizkur laburrak ere dotoretu egiten zuen bere piura. Gauero, ohean etzan eta begiak oraindik bizi-bizi nituela, berarekin egiten nuen amets. Errealitate bihurtu nahi nituen gogoeta haietan, logelako ohean ematen genion amaiera gure arteko harreman lizun bezain bizigarriari. Bere esperoan, bakarrik umeltzen nuen nire nahia. Zoritxarrez, ohe gainean botata nituen komuneko paper zatiek, betebeharrak zuten, erruduntasunak eragindako malkoak ere lehortzen baitzituzten. Egoera jasanezina zen eta niganako aintzat hartzeko interesik agertu ez baitzuen ere, gure arteko lan erlazioa errotik mozteko ordua iritsi zitzaidan.

- Miren, zurekin hitz egin behar dut. Gure artean sortu den ... - esaldiaren amaiera ahoskatu baino lehen, ezpainak emekiro lotu zizkidan eta suge hertsatzaile batek bezala besarkatu ondoren, espero-gabeko baina desiratutako musua eman zidan. – Zoratu egin al zara? – bultzakada bortitz batez nigandik urrunduta nuen, haren listua ezpainetatik laster batean kentzen nuen bitartean.

- Maite ninduzula uste nuen, pentsamendu horretara eramaten ninduten seinaleak igortzen baitzenizkidan. Ez da berriro gertatuko, barkatu Maite.

- Noski ez dela gertatuko, ez zaitut gehiago nire bistan ikusi nahi! Lizun halakoa! Hartu zure gauza guztiak eta hoa eperrak ferratzera. Lesbiana nintzela pentsatzea ere ... Ni ez naiz zuen modukoa, pertsona ondradua eta baloreetan hezitakoa naiz. Ospa nire bistatik!- negarrari ezin eutsi zebilela, maleta egin eta ezer esan gabe, bere lurrun usaina bakarrik utzi zuen nire bizitzan.

Baserriko egoera berrira egokitzea erraza izan zen, kontzientzia txarraren harra baretzea berriz, ezinezkoa. Mirenen oroitzapenak eta hari zuzendutako hitzek, indarrez hartu zituzten eguneko nire pentsamendu guztiak. *Halako mina sortarazteko, munstroa izan behar da, inolako sentimendurik gabeko munstro higuigarria. Horixe naiz bai eta oraintxe lotsa eta nazka labur gelditzen dira nireganako sentitzen dudana adierazteko.* Lanbro eta erru sentimendu egoera hartan nengoela, ate nagusiko aldaba hotsak esnatu ninduen. Nigandik ez oso urrun, Arrañon, bizi zen Mari Cruz Etxaburu etorri zitzaidan bisitan.

- Zer Maite, joan zaizu mari mutil hori ala? Banekien bai, astoa zaldiz jantzi arren, beti asto. – amorratuta, atea aurpegian itxi nion. Bueltako bidea hartuta, ahozikin haren berbek nire buruan bueltaka ziharduten eta suspertzeko behar nuen adorea eman zidaten. Oraindik ere Mari Cruz hurbil zegoela aprobetxatuz, burua jira, atea zabaldu eta desio nuena bota nion lotsa gabe.

- Nora zoaz ergel halakoa! Entzun argi. Zuk diozun mari mutil hori, inoiz ezagutu dudana pertsonarik onena eta maitagarriena da. Eta nik, Maite Txikon Loinaz, Alejandro Txikon eta Clavel Loinazen alaba, harro esan nahi dizut, izugarri maite dudala. – hitzik gabe utzi nuen eta korrika bizian joan zen denei txutxu-mutxua kontatzera. Ez nion errurik egotzi, kontrakoa, pena sentitu nuen beragatik, ni neu espezie bereko munstroa bainintzen gaur arte.

Zoratzeko puntuan nengoen baina maitasun zoramena zen nirea, sendagairik gabekoa. Mirenek ez ninduke aldarte onez hartuko. Baina zer demontre! Tabuak apurtu eta bizitzan lehen aldiz maitasun urduritasuna sortarazten ninduen pertsona berreskuratzeko ausardia atera behar nuen. Bitan pentsatu gabe, Bixente, herriko taxilariari hots egin nion eta Dimarako bihurgunez beteriko bidea hartu genuen. Inguruko kareharrizko haitz sendoen atzetik pixkanaka desagertzen zihoan eguzkiak margotzen zuen paisaiak guztiz liluratu ninduen, barneko kirioen guda baretuz. Diman nintzen.

Azaroko egun hotz hartan herria hutsik zegoen. Udatiarrak aspaldi bueltatu ziren hirira baina ostiral arratsaldez frontoi ondoko taberna guztiak itxita egotea harrizkeo zen. Momentu hartan elizako kanpaikada hotsa entzun eta nire albotik bi gaztetxo pasatu ziren ziztu bizian.

- Azkar Mikel, lur-ematera berandu helduko gara eta!

Begirada jaso eta Dimako elizara eramaten zintuen bide aldapatsua jendez leporaino ikusi nuen. Haien atzetik beste ehunka zihoazen. Dimatar guztiak zeuden han, hildakoa herrian maitatua zela ez zegoen dudarik. Jakingurak bertara eraman ninduen. Negarrari ezin eutsi zihoazen adineko bi emakumeren elkarriketa entzuten jarri nintzen.

- Onenak doaz beti Hortentsia. Minbizi madarikatu honek gutxien espero duzunean beste mundura eramaten zaitu. Aspaldian nik hobeto ikusten nuen ba. Ilusioz gainezka zebilela entzun nuen harategian, behingoz maitemindu zela zioten zurrumurruek.

- Bai neuk be Margari, zabaldua zegoen herrian. Baina gure artean, emakumeak gustatzen zitzaizkion lizun horietakoa ez zen ba? Lesbiana esaten da, ezta? – Margarik negar egiteari utzi eta haserre bizian bidean zihoazen guztiak entzuteko moduan erantzun zion.

- Lizuna, Miren? Lizuna emakumeak gustuko dituen emakumea? Maitasunak ez du genero ezberdintasunik egiten, maitasunak pentsatu gabe erasotzen zaitu. – ingurukoek barruan zeramaten tristura gorroto bilakatu zen eta irain artean bueltako bidea hartu zuen Hortentsiak.

Miren? Nire Miren al zen? Nahiz eta eliza ondoko farmaziako termometroak 3 gradu markatu, izerditan hasi nintzen. Bere abizena zein zen gogoratzeko gai ez nintzen izan eta etsipenak jota, jendartean bidea zabaldu nuen elizako atarira heltzeko. Bestalde, eskela soil eta iluna ez zuen Mirenen irribarreak argitzen, Aracelirenak baizik. *Baina zer demontre da hau?* Ez nuen ezer ulertzen eta alboetara begiratu nuen erantzun bila. Bakarrik nengoen orde.

- Maite, Maite esnatu! – betile artetik Aracelik hain gustuko zuen zetazko soineko luzea antzeman nuen – Dena primeran joan da, etxera goaz.

- Eta Miren, non da Miren? – ospitaleko gela guztiak arakatzeko imintzioa Aracelik geldiarazi zuen.

- Zein Miren, nik ez dut Mirenik ezagutzen. Ametsetan egongo zinen Maite. - lur jota gelditu nintzen eta birikiak bat-batean itxi egin zitzaizkidan, airea falta nuen. Aurrean nuen pertsonaren aurpegira begiratzeko beta izan nuenean berriz, dena ulertu nuen.

- Zu zinen, noski! Zu zinen, Araceli. Miren zu zinen. Ametsetan izan bada ere, behingoz argiztatu zaitut bidaide maitea. – betiko patxadaz nire ondoan zain zegoen emakumearen harridura aurpegia ikustekoa zen. – Ixo mesedez,

ez esan ezer. – eskutik heldu eta nigana gehiago hurbildu nuen. - Urteetan, gaizki esanen beldur eta joera nagusiari jarraituz, aurrera egiten uzten ez ninduen gizartearen presioak, nire benetako sentimenduak mutututa eta giltzapetuta mantendu ditu. Baina inoiz esan eta adierazi gabekoak estutzen zituzten bilur sendoak askatzeko momentua heldu da. Biok gidatutako maitasun ontzian hondoko itsasoak dakartzan olatu bortitzei elkarrekin aurre egiteko aukera izan nahi dut. Lemari tinko eutsiz, zure portuan kordela erria eta zera adierazi nahi dizut: **MAITE ZAITUT ARACELI!!!**.

- Nik ez ordea Maite.

*Ez neuan sexu bereko pertsona bat maite, nire bizitza alaitzen eta hobetzen zeuen pertsona bat maite neban. Ikaragarri maite zindudan Kresaltxu. Orain arbasoen babesera zoaz, zure bihotz alai, on eta garbia mila pusketatik nigatik deseginda dozula. Lemoako, Euskal Herriko, munduko herritarrak, aske bizi, aske maite, bizitza bakarra da eta. Zein polita ezta? Ba ni, zuk ederki dakizun moduan, ez nintzan pausoa emoten ausartu. Egiaz betetako hitzak airean doaz protagonista ni neu nazenean. Zorionak geure marmarti maitagarria, ni ez bezala, ausarta izan baizinan. Eskerrik asko elizkizun honetara etorri zareten guztioi, agur esateko momentua heldu jat. **MAITE, zagozan lekuan zagozala, BETI MAITEKO ZAITUT!!!***

Araceli Malaxetxeberria